Hezeguneak

Hezeguneak ura atxikitzen duten eremu lauak dira. Lehorrekoak izan daitezke (urmaelak, urtegiak, zohikaztegiak...), edo kostaldekoak (padurak, bokaleak...). Ur zikina zuten eta gaixotasunak transmititzen zituzten intsektuz beteta zeuden eremuak zirela pentsatu da hezeguneei buruz orain dela gutxi arte . Horregatik, haietako asko lehortu egin dituzte, eta, batzuetan, urbanizatu, edo nekazaritzarako lur egoki bihurtu.

60ko urteetan hasi ziren ohartzen hezeguneen balio ornitologikoaz, eta, pixkanaka, eremu horiek babestearen aldeko jarrera orokortu egin zen gure gizartean, haien balioa eta zertarakoa ulertu baitziren. Hezeguneak, askotan, lehorreko eta itsasoko eremuen arteko muga naturala dira, eta, horrenbestez, beharrezkoak dira biodibertsitateari eusteko, munduan desagertzeko arriskuan dauden espezieen proportzio handiena babesten baita haietan.
Gaur egun, nazioartean bat datoz hezeguneak biosferako ekosistema aberatsenetako eta berezienetako bat direla esatean; bai eta, ordea, ahulenetako bat direla esatean ere. Horregatik, gaur egun, beti horrela ez gertatu arren, paisaia horiek babestea eta zaintzea aldarrikatzen da.

Egun, klima-aldaketa da hezeguneen arazo nagusia; izan ere, aldaketa horrek uraren zirkulazio-erregimena hankaz gora jartzen du, eta, horrenbestez, azkenean, baliteke hezegune enblematikoenetakoren bat desagertzea.

Euskadiko itsasertzean, Urdaibai (Unescok 1984an biosferaren erreserba izendatua) eta Txingudi dira padura-eremu garrantzitsuenak, batez ere daukaten aberastasun ornitologikoaren ondorioz. Baina ez dira bakarrak; izan ere, barrualdean bezala kostaldean ere, badaude beren berezitasun handiagatik oso garrantzi hidrologiko, ekologiko eta biologiko handia duten beste eremu batzuk ere.

Gure erronka ekosistema horiek zaintzea eta lehengoratzea da, benetako azpiegitura berde bat sortzea, planetaren hondatze-prozesua gerarazten laguntzeko, gure bizi-kalitatea hobetzeko. Ekosistema hezeek funtszeko zerbitzuak ematen dituzte, bai herritarren bizi-kalitatearen, bai uren kalitatearen, bai espezie askoren kontserbazioaren ikuspuntutik.

Ondo zainduta dauden eta bizia gainezka duten hezeguneek nekez berdin daitekeen betetasuna daukate. Orain ohartzen gara zaindu beharreko eta gozatzeko lekuak direla. Gune erakargarriak dira aisialdiaz gozatzeko, eta paisaia-, kultura-, pedagogia- eta zientzia-interes handia dute.

Argazkia: Urdaibaiko hezegunea
www9.euskadi.net/euskadi_virtual/urdaibai2_i.htm

Lan-kontsigna
Testua arretaz irakurri ondoren, idatzi eskematikoki testu-dokumentu batean nolako eragina duen zuen ustez gizakiaren esku-hartzeak.
Hitz batean, xedea da zuek pentsatzea... esku-hartze horrek non sortzen dituen arazoak, zer aldatzen duen, edo zertan eragiten dien beste osagai biotikoei edo abiotikoei?
Hurrengo orientazioak lagungarriak izan daitezke.

Urte askotan ez zen ulertzen zeinen garrantzitsua den hezeguneak zaintzea eta babestea. Uraren zikloaren parte garrantzitsua dira, animalia askoren babeslekua (besteak beste, hegazti asko eta askorena eta bisoi europarrarena), eta landare asko eta askotarikoak izaten dituzte.

- Zuen ustez, nolako eragina dute industrialdeetan, urbanizazioetan... egiten diren kontrolik gabeko isurketek?
- Eta guztiak landatzeko sail bihurtu bagenitu?
- Zer gertatuko zen hezeguneak berreskuratu behar direla ulertu ez eta haietako gehienek ur zikina besterik ez duten gune izaten jarraitu balute?